


EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXIII SAN SEBASTIÁN 15 DE DICIEMBRE DE 1915 N.º 1142



D. LADISLAO DE VELASCO

BELASKO'TAR LADISLAO JAUNA

BITORIA'ko uri leñargitsuan, seme argidotarrak izan dira Belasko abizentzat izan dutenak, ta abetatik bat Ladislao jauna.

Gasiteiz zarrean jayo zan 1817^{-garren} urteko Garagar-illaren 27^{-an}; Pasayan orduban jesuitak zekaten ikastechean, ikasbiderik biarrenak bereganatu zitun; ta azkenik Prantzia'ko Tolosan amaitu zitun bere ikas lanak.

Azkarra ta buru argiya berez, asko ikasiya gañera, ez dago zer esanik bere urian zan gizonik jakintzuenetakua zala. Idazpen gain gañekuak idatzi zitun ala liburu nola albistarietan, ta garai artan urian sortzen ziran okerrak zuzentzeko etzegon Ladislao jauna bezelako bat.

Uri batzarrean gazte zala sartu zan, lanik gaitzenetan lagundu ziyon uriari, ta berari eskerrak zenbait estuasunetan ongi atera zan.

Alkate izatera irichi zan lenengo aldiz 1865^{-garren} urteko Ilbelta'ren lenbizikoan ta ordutik aurrera askotan aukeratua izan zan berriro.

Araba'ko batzar buruan ere askotan batzar-lagun egon zan; ta 1872^{-garren} urtian senadore'tako aukeratu zuten.

Zala batian, zala beztian, gogotik lan egin zuben bere jayoerriaren alde, baita ere Araba ta Euskal-erriko eskubidien alde.

Bitoriak zor dizka aurrerapen asko, Arabak eta Euskal-erriak, berta-ko legeen alde sayatu zan gogo ta almena.

Goitu zagun bada Belasko'tar Ladislao jaunaren izen gogoangarriya.